

Irakaskuntza ez-unibertsitarioko irakaskuntzako ikasleak %2,2 ugaritu dira, batez ere haur hezkuntzan eta lehen mailan

Araubide orokorrekoetan, zentro publiko eta pribatuetak matrikulazio-kopurua orekatua da

2008/09 ikasturtean ikasketa ez-unibertsitarioren batean aritutako ikasle kopurua 381.644 izan zen, aurrekoan baino %2,2 gehiago, Eustaten datuen arabera. Haietatik 357.379 ikasle (%94) araubide orokorreko ikasketetan aritu ziren; 8.853 matrikula berri egin ziren, %2,5 gehiago.

Arabian (%4) hazi zen gehien matrikulazio-kopurua aurreko ikasturtearen aldean; Gipuzkoan %2,8 eta Bizkaian %1,2.

Zentro publikoan edo pribatuan aritzeko orduan, araubide orokorrekoetan ikasle-banaketa orekatua izan zen maila guztietan, HHIn izan ezik, non %98 publikoren batean aritu baitzen.

Araubide Bereziko Irakaskuntzetan (hizkuntzak, arteak, kirolak) aniztasun handiagoa izan zen ikasi beharrekoen arabera; izan ere, prestakuntza-programa hauetan zentro-kopurua txikiagoa da, eta eskaintzak asko baldintzatzen du aukeraketa.

1. taula-2008/09 ikasturtean matrikulatutako ikasleak

	2008-2009 ikasturtea			(%) Matrikulatutako ikasleen urte arteko Δ		
	Guztira	Publikoak	Pribatuak	Guztira	Publikoak	Pribatuak
GUZTIRA	381.644	213.752	167.892	2,2	2,6	1,7
Araubide orokorreko irakaskuntzak	357.379	191.209	166.170	2,5	3,1	1,9
Haur-hezkuntza	91.206	46.717	44.489	3,3	3,5	3,1
Lehen hezkuntza	110.095	54.542	55.553	2,6	3,2	1,9
DBH	69.046	30.797	38.249	0,2	1,5	-0,8
Batxilergoa	28.832	14.982	13.850	-1,0	-2,1	0,3
Erdi mailako LH	10.232	5.898	4.334	-0,3	1,3	-2,4
Goi-mailako LH	15.098	7.617	7.481	1,0	3,1	-1,1
Hezkuntza berezia	1.033	490	543	3,5	10,9	-2,3
Hasierako lan-kualifikazio programak	2.641	1.464	1.177	-	-	-
Helduen Hezkuntza	29.196	28.702	494	1,8	-1,8	-1,0
Araubide Bereziko irakaskuntzak	24.265	22.543	1.722	-3,1	-1,8	-17,3
Hizkuntzak	20.242	20.242	-	-2,7	-2,7	-
Musika	2.977	1.781	1.196	-9,0	2,4	-22,0
Arte plastikoak eta diseinua	537	224	313	-13,8	15,5	-27,0
Kirola	274	63	211	75,6	46,5	86,7
Dantza	83	81	2	9,2	17,4	-71,4
Goi Mailako Diseinua	152	152	-	34,5	34,5	-

Iturria: EUSTAT

Haur hezkuntza eta lehen mailan haziz jarraitzen du matrikula-kopuruak.


Araubide orokorrekoetan, azken urteetan bezala, haur-hezkuntza eta lehen mailan izan zen eskaerarik handiena; 91.206 eta 110.095 ikasle. Matrikulazio-hazkunderik handienak ere izan zituzten, %3,3 haurren hezkuntza eta %2,6 lehen mailan. Joera bera igarri zen hezkuntza bereziko ikaslerian; kuantitatiboki txikiagoa, %3,5 hazi zen aurreko ikasturtearen aldean.

Helduentzako hezkuntza-zentroetako araututako moduluetan 29.196 pertsona aritu ziren, %1,8 gehiago.

Gainerakoetan –DBH, batxilergoa, lan heziketa- ikasle kopuruak ezer gutxi aldatu ziren aurreko ikasturtearen aldean: 69.046, 28.832 eta 25.330. Nabarmenezkoa da DBHn aldatu egin dela beheranzko joera, 165 ikasle gehiago izan baitira.

Azken hamarkadan ikaslez hazi diren mailak haur-hezkuntza (%60) eta lehen maila (%10) izan dira; nabarmen jaitsi dira DBH (%-19) eta batxilergoa (%-30); gradu ertaineko eta goi mailako lan heziketak berdintsu dirau.

1. grafikoa. Ikasleriaren irakaskuntza mailaren arabera bilakaera



Iturria: EUSTAT

Iturria: EUSTAT

Araubide Bereziko Irakaskuntzetako ikasleen %83 hizkuntzetan aritu ziren

24.265 ikasle aritu ziren araubide bereziko irakaskuntzetan, aurreko ikasturtean baino %3 gutxiago. Hizkuntzek -20.242 matrikula- hartzen dituzte ikaslerik gehien.

Beste mailetan, 2.997 ikasle musikagintzan aritu ziren; 537 arte plastiko eta diseinuan; 274 kirolgintzan; 152 goi mailako diseinuan eta 83 dantza-ikasketetan.

Araban 4.057 ikasle matrikulatu ziren; Bizkaian 14.551 eta Gipuzkoan 5.657. Bizkaian eta Gipuzkoan %4 jaitsi zen ikasle-kopurua; Araban %3,5 igo.

Hizkuntza-ereduetan, D indartuz doa goi mailetatik beheraka etorriz. Batxilergoan erdia ari da eredu honetan, eta ehunekoak haziz doaz, haur hezkuntzan %70 delarik.

Haur hezkuntzan eta lehen mailan aritutako irakasleen %85, emakumezkoak

2008/09 ikasturtean 34.000 izan ziren irakasleak, 2009ko pertsona okupatuen %3,4. %97 araubide orokorrekoetan aritu ziren eta gainerakoak araubide berezikoetan. Lantokiaren titulartasunari begira, irakasleen %62k ikastetxe publikoetan lan egin zuen, eta %38k ikastegi pribatuetan.

Araubide orokorreko irakaskuntzetan, 32.848 irakasle aritu ziren. Haietarik, 16.015 Haur eta Lehen Hezkuntzan, eta gehienak emakumezkoak (%85); 15.100 irakaslek Bigarren Hezkuntzan jardun zuten, bai derrigorrezkoan bai ez-derrigorrezkoan, hemen emakumeak %58 izan zirelarik.

2008/09 ikasturtean, Araubide Berezikoetan 1.152 irakasle aritu ziren, haietariko %53 emakumeak.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Maite Ugarte Barcina

Tel:+34-945-01 75 47 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp